EUSKAL NORTASUNAREN AURKAKO

GURUTZADA

Azken hilabeteetan euskal nortasunaren aurkako gurutzada indartu eta bizkortu egin da Euskal Herrian. EITBko maparekin hasi eta testu liburuetako aldaketekin jarraitu dute. Baina ez da hemen amaitu, orain espainiar selekzio ezberdinen desfilea Euskal Herritik iragatea nahi dute, lehenik Gorbeako militarrak eta atzetik espainiarren sinbolo den *Manolo* ere badakarte.

EITBren *IKUSPEGI* ALDAKETA

Maparekin hasi zirenean hautsak harrotu baziren ere, gogotik jarraitu dute aurkezleak aldatzeraino, *euskal itxura* zuten aurkezleak alboratuz adibidez.

Ez da hemen geratu, berriak emateko eta sailkatzeko modua beti tendentziosoa izan bada ere, orain are nabarmenago jokatzen ari dira.

Adibidez, N1 errepidean istripuak Madril edo Frantziara doazen norabidetan gertatzen dira orain, lehen Iruñea, Gasteiz eta Irunera norabidean gertatzen zirenak hain zuzen.

ESPAINIAR BANDERAK

Aurrez legebiltzarrean eta hainbat udaletan inposatu bazituzten ere, jada, naturaltasunez Eusko Jaurlaritzaren sinboloetako bat bailitzan darabilte EAEn. Agerraldietan, Ajuriaenean,…



EUSKAL HERRIA IZENA eta IZANA

EAJ-k Euskal Herriko futbol selekzioari izena aldatu nahi izan zionetik denetik entzun behar izan dugu.

EAEko PP-k Euskal Herria entitate kultural bat dela esaten du. Aldiz UPN-k Nafarroaren *izate bereziari* eraso egiten diola eta ezabatu egin behar dela, hori bai denak ados jartzen dira ez dela existitzen adieraztean.

Aurten ere Euskal Herriko Futbolariak gabonetan jokatu gabe geratuko dira. Baina ez daude geldirik, **KIROLHARRIA** finkatuko dute abenduaren **27an Donostiako Belodromoan.**

Zita garrantzitsua izango da Euskal Herriko Selekzioak izateko lehenik, Euskal Herri osoko kirol federazioak behar ditugula uste dugunontzat.

Nola osatu bestela kirol selekzioa kirolariak banaturik baditugu?

ABENDUAren 6 – **ESPAINIAR KONSTITUZIOAREN EGUNA**

Euskal Herriaren ukazioa ospatzen dute, jai egun arrotz honen sortzaileek.

Una grande y libre aldarrikatzen dutenek, Espainiak ongi loturik jarraitzen duela aldarrikatzen dute.

Euskal Herrian ez dugu ezer ospatzeko.